

**2021-2022 PANELA: IKUS-  
ENTZUNEZKO KONTSUMOA**

---

## 2021-2022 IKASTURTEKO PANELA

---

2021-2022 ikasturtea martxan jartzearekin batera, Ikusiker Panela berriro abiatu dugu. Txosten honetan jasotzen dira ikasturte honetan panelean parte hartzeko izena eman duten pertsonen emandako datuen emaitzak: etxea dituzten aparailuen eta ikusi dituzten azken edukien inguruko galderak jasotzen dira.

### 1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Unitateak ustiatzen ditu.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko irailaren 13tik azaroaren 9ra bitartean luzatutako izen-emate galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa panelistek etxean eskuragarri dituzten aparailuei eta ikusi dituzten azken edukiei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 1.690 erantzun baliozko hartu dira kontuan, hau da, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabek).



**2. PANELISTEK ESKURAGARRI DITUZTEN APARAILUAK**

Lehenik eta behin, etxean duten ekipamenduz galdetu zaie. Ia guztiek esan dute telefono mugikorra eta ordenagailu eramangarria dituztela (% 99,7k eta % 96,9k), eta hamarretik ia zortzik internetera konektatutako telebista bat ere bai (% 79,4k). Erdia pasatxok dute tablet bat (% 57,6k) eta bideo-kontsola bat (% 56,7k). Azkenik, erdiek baino gutxiagok dituzte telebista arrunta (% 46,2k) eta mahaiko ordenagailua (% 42,9).

1. Irudia – Etxean duen ekipamendua



Iturria: Ikusiker Applika +

**3. INTERNETEN / SARE SOZIALETAN IKUSITAKO AZKEN IKUS-ENTZUNEZKOA**

Azkena ikusi dituzten edukiei buruzko galdera batzuk ere egin zaizkie panelistei. Internet eta sare sozialetan ikusitako edukiak aipatzean, Squid Game serie korearrak izan ditu aipamen gehien, eta horri jarraian, Instagramen ikusitako edukiak nabarmen aipatu dira(story-ak, feed-ak, reel-ak eta bestelakoak ikusi dituztenak) Youtuben ikusitako bideoak ere oso aipatuak izanik. Ondotik, Netflixeko beste bi ekoizpen izan dira arrakastatsuenak: Sex Education eta La casa de papel.


**2. Irudia – Zein izan da internet edo sare sozialetan ikusi duzun azken ikus-entzunezko edukia?**



Iturria: Ikusiker Applika +

Azken ikus-entzunezko horri dagokionez, ia guztiek etxean ikusi dutela adierazten dute (% 87,5ek), % 4,2k garraio publikoan eta % 2,9k kanean.


**3. Irudia – Zein lekutan ikusi zenuen?**



Iturria: Ikusiker Applika +

Berau ikusitako plataforma aipatzean, gehien aipatzen dena Netflix da, kasuen % 38,7etan esana. Segidan datoz Youtube (% 22) eta Instagram (% 11,8). Hirugarren lekuan, alde dezenterekin, gelditzen dira Google, Amazon Prime, Twitch, Nahieran edota TikTok bezalako aukerak.


4. Irudia – Zein plataformatan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Ikusitako eduki gehienak gaztelaniaz izan dira, % 71,5. Bigarren lekuan ingelesa aipatzen da, kasuen % 21,1ean, eta hirugarren lekuan euskara, % 3an. Bestelako hizkuntzak, frantsesa gehituta, kasuen % 4,4 dira.

5. Irudia – Zein zen ikusitakoaren hizkuntza?



Iturria: Ikusiker Applika +

4. TELEBISTAN IKUSITAKO AZKEN PROGRAMA

Galdera berdinak errepikatu dira telebistaren kasuan. Telebistako kanaletan ikusitako azken ikus-entzunezkoen artean informazioari lotutako edukiak gailentzen dira beste guztien ginetik. Informazioa aipatzean, panelkideek “albisteak”, “teleberria”, “telediario” eta bestelako terminoak aipatzean informazioari egiten diote erreferentzia, eta termino horiek adierazitako erantzunak batzen ditu “Informazioa” kontzeptuak. Horren ondotik, La isla de las tentaciones, Masterchef eta La que se avecina bezalako saioak dira komunenak erantzunen artean. Jarraian gehien ikusi diren ikus-entzunezkoetan, aipatzekoa da ETB1eko Baserria programa El Hormigueroen eta futbolarekin erlazionatutako edukien maila berean aipatua izan dela, pareko presentziarekin.


6. Irudia – Zein izan da telebistako kanaletan ikusi duzun azken ikus-entzunezko edukia?



Iturria: Ikusiker Applika +

Telebistan ikusitako azken edukiari dagokionez, are nabarmenagoa da “etxea” ikusteko leku moduan, % 96k hala adierazi baitu (beste kasu gehienak “beste batean” kokatzen dira, eta kalea, garraio publikoa eta taberna gehituta falta den % 1a osatzen dute).


7. Irudia – Zein lekutan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Erabilitako kanalari dagokionez, interneteko plataformen kasuan baino gehiago barreiatzen dira erantzunak. Kanalik aipatuena, % 50etik gora batzen dituztenak, honakoak dira: Tele 5, La 1, Antena 3, ETB 2 eta ETB 1.


8. Irudia – Zein kanaletan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Azkenik, ikusitakoaren hizkuntzan ere nabaritzen dira desberdintasunak. Telebistaren kasuan, gehiago aipatu da gaztelania (kasuen % 86,2an) eta euskarak presentzia irabazten du (kasuen % 9,1ean aipatzen da); aldiz, ingelesa ia desagertu egiten da (% 1,5ek aipatu dute).

9. Irudia – Zein zen ikusitakoaren hizkuntza?



Iturria: Ikusiker Applika +



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa lizentzia](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/) baten mende dago.





